

Marmari Leitzako aldizkaria



13. zenbakia / 2006ko abuztua

- Bullying-a
- Hizkuntz eskubideak
- Etxepare beka
- Piropoak eta ligatzeko bideak
- Bai Euskarari
- Ludoteka
- Ezetz asmatu
- Pertsonai ezkutua...

**Pesta eta opor giroan
ere euskarari BAI esan**

Maite duzuna zaintzen duzulako

ale honetan:



3. or. Aurkezpena.

4-7. or. Bullying-a.

8-11. or. Hizkuntza Eskubideak.

12-13. or. Etxepare beka.

14-15. or. Piropoak eta ligatzeko bideak.

16-20. or. Bai Euskarari

21. or. Ezetz asmatu.

22-25. or. Ludoteka.

26. or. Izen-abizenak.

27. or. Denborapasak eta Eroskopoia.

- Argitaratzailea: MARMARI
- Diseinua: Allende Arnaiz
- Maketazioa: Igor Astigarraga
- Argazkiak: Aurrera elkarte, Pablo Feo, Jaione Astibia (HITZA) eta Euskara Zerbitzua



13

13

13

Hamairugarrena hemen da

Uda ailegatu da. Garai ona batzuenzat eta ez hain ona beste batzuenzat, baina orokorrean jendeak oporrak izaten ditu. Bestalde, bero zakarra egiten ari da, baina horretarako dago igerilekua ezta? Hondartza ere nahiko gertu daukagu. Jendeak udan oporrak hartzen ditu, eta gainera, herrietako festa gehienak udan izaten dira. Laster Leitzakoak izango dira. Haurrek jadanik kalean pasatzen dituzte ondutxo gehienak. Kaleak jendez betetzen hasten dira.

Marmari aldizkariaren hamahirugarren zenbakia jadanik kalean da, Leitzatar guztiek disfrutatu dezazuen. Aurten go edizioan ere institutuko ikasleek parte hartu dute. Leitzarrek egindako aldizkaria nahi dugu, Leitzarrentzat. Berriz ere eskerrikasko.

Xaporen 13. zenbakia. Beste horrenbeste eta gehiago ere eginen ditugulokotan, lanean jarraitzen dugu. Zenbaki honetan, aurrekotan bezalaxe, Leitza

eta bertako kontuei begiratu bat ematen ahalegindu gara. Herriko gaien inguruko informazioa ematea da gure helburua, gaiak plazaratzea, herriko bizitza soziala ezagutaraztea, eta, jakina, eztabaida sortu eta piztea.

Eta, bestalde, Marmariko zenbaki honetan zer? Bada, ohi bezala, denetik pixka bat. UEMari buruzko informazioa, aisialdia (ludoteka, haur txokoa...), izen-abizenak euskaratzeri buruzko informazioa eta bar. Horietaz guztietaz gainera, ohiko atalak: ezetz asmatu, pertsonaia ezkutua...

Xaporen zenbaki honetan, adibidez, UEMA hartu dugu hizpide, besteak beste. Bestalde, azken urteotan euskararen inguruan eskualdean egin den ekimenik garrantzitsuenetakoa bat ere aipatuko dugu. Bai Euskarri Ziurtagiriak ari gara. Bai Euskarri egitasmoa herriko jarduera guztietan nabarmentzen da, Leitzako herriak euskararekiko hartu duen konpromiso irmoa erakutsiz. Aurten ekaina-

ren 30ean ospatu dugu Bai Euskarri Ziurtagiriak banatzeko ekitaldia. Ekitaldia jai giroan ospatu genuen: txistularia eta dantzaria, txalaparta, bertsoalriak eta abar.

Aldizkari honetako beste gai bat: izen-abizenak euskaratzea. Jende gehienak bere abizenak erdal grafiarekin idatzita dauzka automatikoki horrela jarri dietelako. Gaur egun erraza da abizenak euskaratzea edo zuzentzea. Leitzatik mugitu gabe egin dezakezu. Erroldatze-agiria udaltxean eskatu behar duzue eta jaiotze-agiria epaitegian. Asko Iruñean edo Donostian jaiotze-agiria handik bidaltzea eskatu dezakezue. Gezurra badirudi ere gaur egun izen-abizenak ongi idatzita duten jende gutxi dago. Hemendik zuek ere izen-abizenak euskaratzea edo zuzentzera animatu nahi zaituztet.

Ongi pasa festak. Festetan ere euskaraz barra-barra.



Bullying

Harroputz eta baztertzaileez nazkatuta

Bullying. Ondo tratatzen dugu elkar institutuan? Bullingaren arazoa gainontzeko institutuetan soilik gertatzen den gauza al da? Edo ia denok, askotan konturatu gabe, egiten dugu? Azken hau da denetan galderarik egokiena, izan ere, horixe baita Leitzako Amazabal institutuan pasatu eta bete dugun inkestaren emaitzak dioena.

Arazo hau betidanik gertatu izan den arren, ez da duela gutxi arte asko entzun izan. Beti dago jasotzen diren burla, baztertze edo golpeak isilean gordetzeko joera. Hau dela eta, pentsatzen dena baino askoz larriagoak dira bullyingak eragiten dituen arazoak, gure inguruan gertatzen diren kasu gehienez ere ez baikara ohartzen. Honen adibide garbiena duela hilabete batzuk Hondarribiko gazte batek bere buruaz beste egin izana da, eta dena bere "lagunek" emandako jipoi, baztertze eta burlengatik.

Honetaz jabetuta, Leitzako institutuan inkesta bat pasatzea erabaki dugu DBH 1-etik Batxilerrerainoko ikasleen artean, azken horiek barne. Emaitzak aztertu ondoren grafitoetan agertzen diren datuak aurkitu ditugu.

Kezkarrienak burlak dira. Askotan ez diegu burla eta

iranei erreparatzen, lagun artekoak eta inportantzi gabeak ematen baitute. Baina, inkestaren arabera, %76ak askotan ikusi izan du jendea ingurukoei burla egiten. Ikasleen erdiak, gainera, noizbait burla egin duela edo burla egin diotela onartu du.

Baina, ez da dena burlatan amaitzen, izan ere, jotzea ere gertatzen baita institutuan. Jipoiak eta neurritz kanpoko golpeak oso gutxitan, edo ia inoiz, gertatzen ez badira ere (Leitzako institutuan beti ere) ostikoak, buruko kolpeak (txapadak) eta abar izaten dira. Inkestaren arabera ikasleen %41k ikusi du jendea jotzen, eta %86k bultzatzen. Jo dituztela edo jo dutela, berriz, %20k onartu du.

Hala ere, bada bullyingean horrenbeste kasu egiten ez zaion baina, besteak bezain txarra eta eraginkorra den kasu bat ere, hau da, baztertzea. Baztertzeaz hitz egiten dugunean, lagunik ez izatea edo bere lagunek kasu ez egiteaz ari gara. Jokoetan berarekin ez kontaktzea edo taldean integratzeko eragozpenak jartzea etab. Inkestaren emaitzek diotenez, ikasleen %85k ikusi dute norbait baztertzen, eta %34k, gainera, askotan. Ikasleen erdiak ez duela inoiz baz-

BULLYING-A




tertu esan du, eta beste erdiak, oso gutxitan baztertu izan duela.

Esan beharra dago, emaitzen arabera, gehien jotzen eta burlatzen dutenak mutilak direla. Eta gehien baztertzen dutenak, berriz, neskak. Datu hauek ikusita, beraz, norberak ikusiko du beldurgarriak iruditzen zaizkion ala arruntak eta ez kezkarriak, baina gure iritziz nahiko larriak dira. Honek ez du esan nahi, inolaz ere, ikastetxe hau besteak baino arriskutsuagoa denik, gainontzeko ikastetxeetan ere berdina edo oraindik okerragoa baita ematen den bullyinga. Adibidez, Iruñean eta inguruetan ikasleen % 70k baino gehiagok onartu dute bullying kasuak ikusi dituztela, eta %63k. onartu du inoiz lagunen batekin sartu dela. Gainera, ikasleen %34k beldurra sentitu izan du noizbait eskolara joateagatik.

Hau ikusita, zergatik ez da ezer egiten? Goraxeago aipatu dugun bezala, ikasleen erdiak baino gehiagok ikusi izan dute bullying kasuren bat, baina hauetako zenbatak egín dute zerbaít biktimari laguntzarren? Askotan, isiltsun paktuaren antzeko zerbaít egiten da, gaizki ikusita baitago inor salatzeari, baina mugak errespetatu behar dira eta norbait pasatzen bada, atentzioa deitu behar zaio.

Gogoeta batzuk sustatu behar dira gelan eta erakutsi ausartenak edo heroiak direla umilazioa ibiltzen duen liderarenganako beldurra gairatzen dutenak. Beraz, heroiak behar ditugu honelako kasuetan erasoak ia astero dituztenei babes eman eta erasotzaileari aurre egin ahal izateko. Hau honela konpontzen ez bada, irakasle edo pertsona heldu baten gana jo behar da, nahiz eta askotan, ez iruditu, bullyinga jasaten duten ikasleek oso gaizki pasatzen baitute.

Arazoa bide txarretik doa eta dagoeneko, gauza normaltzat hartzen dira onartu ezin diren zenbait gauza (golpeak, zenbait burla...). Honela jarraituz gero, jendea ohitu egiten da ikusten duenera eta urte gutxi barru eskolak infernu bihurtu daitezke. Beldurrak ikasle askoren artean dirau eta zenbait galdera ibil daitezke askoren buruetan, “zein izango da hurrengoa?”, “ni izango ote naiz?”.



Beraz, ikasle guztiok saiatu behar dudgu datu hauen kopuruak jaisten, eta hurrengo urteetan egiten diren inkestetako emaitzak oraingoak baino hobekia izan daitezen. Horrela denok gusturago joango baikara ikastetxera, eta batzuk gainera, askoz gusturago bíziko baítira benetako lagun eta adiskideak dituztela jakinez.

(Hurrengo orrian jarraitzen du)

Gure seme-alaba jazarpena pairatzen ari delakoan bazaude, bullying test honen bidez jakin daiteke nahiko maila fidagarria.

Aitak eta amak, seme alabari modu lasaian eginaraziko dizkio letik 4rarteko testak. Komenigarria da seme alabak eskuz egitea test hau, besterik ezean bi gurasoetako batek edo biak batera galderak modu normalean egitea komeni da eta erantzun bakoitzaren ondoren arduraturik ez azaltzea. Ondoren gurasoek ere testaren bosgarren atala egingen dute.

IKASLEARENTZAT:

A. Ekintzak

1. Kolpatu egiten naute, baina ez dakit zergatik.
2. Txorakeriekin nazkatzen naute.
3. Bulkatu egiten naute.
4. Jo egiten naute.
5. Nire gauzak kendu eta ezkututzen dizkidate (motxila, gomak...).
6. Niri buruzko gezurrak zabaltzen dituzte.
7. Dirua edo bestelako gauzak ematea behartzen naute.
8. Nire gauzak hausten dituzte (lanak, koadernoak...)
9. Ezizenak edo moteak jartzen dizkidate.
10. Nire izena paretetan edo karteletan agertzen da, mespretxuz.
11. Mezu anonimoak bidaltzen dizkidate bai papertxoetan bai sakelekoaren bidez.
12. Arropa zikintzen di date.

B. Jazarpena

1. Nire janzkerarengatik burla egiten didate.
2. Nire inteligentzia mailarengatik burla egiten didate.
3. Nire jatorriarengatik burla egiten didate.
4. Nire familiaz trufatzen dira.
5. Beldurtu egiten naute.
6. Irakasleen aurrean kexatzen banaiz mehatxatu egiten naute.
7. Kaletik noala ni mendekatzen dira.
8. Gurasoen aurrean kexatzen mehatxatu egiten naute.
9. Etengabe probokatzen naute.
10. Bidea oztopatzen didate beti.

11. Ezin dut klasean parte hartu, barre egiten baitidate.
12. Mugikorrera deitzen didate mehatxatuz.

C. Bakardadea


1. Ez naute hurbil ikusi nahí.
2. Beste ikasleak nirekin harremanetan jartzea eragozten dute.
3. Lehen estimatzen ninduten batzuek orain ez didate kasu egiten.
4. Klasetik irtetea, aurrenekoa edo azkenekoa izaten saiatzen naiz beti.
5. Ni baino lagun gazteagoak bilatzen ditut.
6. Irakasleek ez didate kasu egiten.
7. Bakardadean negar egiten dut.
8. Ez naute kontuan hartzen eta ez dut inoiz taldeetan parte hartzen.
9. Batzuetan, denen aurrean ere negar egiten dut.
10. Jarraitu egiten didatela pentsatzen dut.
11. Irakasleak nire kontra jartzen dituzte.

12. Atsedendietan, irakasleen hurbiltasuna bilatzen dut.

D. Erreakzioak

1. Neure buruaz lotsatzen naiz.
2. Klasean atentzioa galtzen dut.
3. Ez naiz nire ikasketetan kontzentratzen.
4. Nire familiarengatik lotsatzen naiz eta arrazoirik gabe errua botatzen diet.
5. Etxetik ateratzeak beldurtzen nau.
6. Eskolara joateak beldurtzen nau.
7. Ariketak jendaurrean esateak beldurtzen nau.
8. Pailazokeriak egiten ditut beraiek bezalakoa izaten saiatzeko.
9. Jendaurrean, totelka hitz egiten dut.
10. Erasotzen nauen pertsona nire amestetan azaltzen da eta gaizki lo egiten dut.
11. Oinaze fisikoa daukat eta medikuek ez dakite zerena den.
12. Etxean haserraldiak izaten ditut.





GURASOAK BETETZEKO:

1. Bizkarreko mina duela esaten du.
2. Bere arropa markatua edo margotua agertzen da.
3. Botaka egiten du.
4. Aurpegian edo gorputzean zauriak edo markak izaten ditu.
5. Eskolara ez joateagatik edozein aitzakia asmatzen du.
6. Ez du goserik izaten.
7. Bere munduan eta begirada galduarekin egoten da.
8. Oso nekatur iristen da eskolatik.
9. Ikusmen galerak izan ditu.
10. Hau dena orain dela 2 aste baino lehenago hasi zen.
11. "Hiltzea ez litzidake inportako..." bezalakoak esaten ditu.
12. Eskolaz aldatu nahi duela dio.

TUTOREARENTZAT:

1. Normalean baino lan gutxiago egiten du orain.
2. Atsedendietan, irakasleekin ondoan egoera bilatzen du.
3. Klasean, galdetzerakoan klase kideek beregatik barre egiten dute.
4. Klasea txalo egiten du irakasleak atentzioa deitzen dionean...
5. Urduri azaltzen da.
6. Zenbait klase kideekin sumisoa da.
7. Bere klaseko burua edo liderra ez da azkarrena baldarrena eta abusonena.
8. Taldeak klasekide batzuk baztertzen ditu.
9. Klaseari atentzioa deitzen badiu irakasleak ez du erantzunik jasotzen.
10. Ez da BERDINEN ARTEKO ohiko borroka bato.
11. Ez dira klaseko dinamika hausten duten ohiko jokaerak.
12. Ikasle hau sufritzen ari da klasean, normalean baino gehiago.

Testa baloratzeko prozedura

Puntuazio zuzena, puntuatzeko modua hurrengoa da: gurasoek 5 test hauetan baieztatu erantzunak kontatu egin behar dira, gero baieztatu guztiak zati 5 egin eta ondoren, borobildu.

Pertzentilak ondoren lehen ateratako kopurua (zati 5 egin ondoren) portzentatuetan bilakatuko da: puntu 1, 8a da; 2, 17a; 3, 25a; 4, 33a; 5, 42a; 6, 50a; 7, 58a; 8, 67a; 9, 75a; 10, 83a; 11, 92a; 12, 100a.

Atalasea, testaren erantzunak %50 igarotzen badu, komenigarriena testaren erantzunak eta testa bera tutorearengana eramatea izanzen litzateke, honek 6. testa eginen luke.

Batuketa, Aurrekoan bezala, baieztatu erantzun guztiak batu behar dira (6. testekoak barne) eta denen batuketa zati 6.

Pertzentilak, Aurrekoan, kopuruak pertzentiletan bihurtzeko egin den eragiketa bera egin behar da; hala, kopuruak pertzentiletan izango ditugu (lehen egin bezala 1, 8a)

Erantzunak, 99rekin, laguntza psikologiko kliniko behar luke; 92rekin, laguntza psikopedagogikoa; 83 egoerari aurre egiteko defentsarik gabe dago; 75arekin, biktima sentimendua; 67, trebetasun sozialak hobetu behar litzateke; 58, introbertsiorako joera; 50 autoestimazio hobetu beharra; 42 arrisku maila txikia; 8-33 artean arrisku maila txikia.

Hizkuntza Eskubideak

Euskara jakiteko eta erabiltzeko eskubidea



Ahoz aho dabilen hitza dugu: **ESKUBIDEA**. Eskubide ugari aitortzen zaizkigu legetan edo nazioarteko itunetan: **bizitzeko eskubidea, osasunerako eskubidea, mugitzeko eskubidea, lan egiteko eskubidea... eta baita HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ere. Baina zer da hori? Zer dira hizkuntza eskubideak?**

Izenak dioen bezalaxe, zalantzarik gabe, hizkuntzarekin zerikusia dauka. Esaterako, euskararekin. Baina ez da, huts-hutsik, hizkuntza ezagutzeko eskubidea. Ez. Horretaz gain, eta batez ere, **HIZKUNTZA ERABILTZEKO ESKUBIDEA**z ari gara. Han eta hemen. Gaur eta bihar. Geure hizkuntza geure herrian erabiltzeko eskubideaz ari gara. Norbanakoaren eskubidea, baina baita kolektiboaren edo hizkuntza komunitatearen eskubidea ere. Guk, euskaldunok, norbanako gisa eskubidea dugu euskara erabiltzeko. Baina talde gisa ere, geure hizkuntzari eusteko eta hura berreskuratzeko

eskubidea ere badugu, horrek dituen ondorio guztiekin.

Eta ez da harrapatu ezin daitekeen kea. Konkretua izan behar du, zehatza, eta denok ulertzeko modukoa. Hain zuzen ere, horixe argitzen saiatuko gara orri hauetan. Pertsonok, hiztunok, besteak beste euskaldunok, zer eskubide dugun azalduko dugu.

Aipatuko ditugun eskubideetako batzuk, gaur egun, bertako legeak berak aitortzen dizkigu. Beste batzuk, berriz, oraindik ez. Baina gure ustez guztiak ere dira gure eskubideak, eta eskubide horien guztien inguruan eska dezakegu erantzun bat. Eta ez dugu euskaldunontzat deus berezirik eskatzen. Guk ere, munduko eta gure hurbileko beste hiztun askok bezalaxe (ingelesdunak, frantsesdunak, gaztelaniadunak...), gure hizkuntza toki guztietan normal-normal erabiltzeko eskubidea besterik ez.

ESKUBIDE OROKORRAK


1 **Euskara jakin eta erabiltzeko eskubidea.** Familian, eskolan, euskaltegian... euskara ikasteko eskubidea, eta ikasitako hori erabiltzeko eskubidea.

2 **Bizitza publikoan eta pribatuak eginkizun, lan, eta harreman guztiak euskaraz egitea.** Era guztietako jardunak sartzen dira hemen: ikastea, lagunarteko harremana, hitzaldi bat ematea, jaialdi bat antolatzea...

3 **Bilera, batzar, eta bilkura guztietan euskaraz hitz egitea.** Udalaren batzarrean, portaleko bileran, institutuko ikasleen bileran, elkarreko batzarrean, mahai-inguru publikoetan...

4 **Edozein dokumentu, publiko nahiz pribatu, euskaraz idaztea eta dokumentu horrek balio legala izatea.** Lan-kontratuak, etxebizitza egiteko proiektua, testamentua, eskabideak, aurrekontuak, fakturak...

Hizkuntz eskubideen
behatokia
Telefonoa: 902194332



Administrazioa

Hizkuntza eskubideen bigarren multzoa duzu hau, eta bertan administrazioari dagozkionak bildu ditugu. Arlo garrantzitsua da oso: alde batetik, publikoa delako eta denon menpe eta denon zerbitzuan egon beharko lukeelako; bestetik, era batean edo bestean, denok dugulako administrazioarekin harremana eta funtzio garrantzitsua betetzen duelako gizarte-bizitzan.

1. **Aginte eta botere publikoekin ditugun harremanetan euskaraz erabiltzea, ahoz nahiz idatziz.** Estatuarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta udalarekin ditugun harreman administratiboak, judizialak, polizialak... Ahozko harremanetan, itzultzailerik gabe aritzeko eskubidea.
2. **Dokumentu ofizialak, legeak eta gainerako testu edo arau juridikoak euskaraz izatea.** Beranduenez, beste hizkuntzetan argitaratzen den momentu berean.
3. **Prozedura judizialak, epaiketak... euskaraz egitea.** Prozedurak eta epaiketak epaile, abokatu, fiskal eta idazkari judizial euskaldunekin egitea.
4. **Erregistro publikoetako idatziak, notarioek egiten dituztenak... euskaraz jasotzea.**
5. **Nafarroako Gobernuaren administrazioarekin harremanak euskaraz.** Nafarroako Gobernuak ematen dituen zerbitzuak euskaraz jasotzea; bere departamentuetako ordezkariekin eta langileekin euskaraz aritu ahal izatea (arduradunak, mendizainak, albaitariak, administrariak, teknikariak...); Nafarroako Gobernuak bidaltzen dizkigun idatziak, inprimakiak, foiletoak, dokumentuak... euskaraz jasotzea.
6. **Udalarekin harremanak euskaraz.** Udalak ematen dituen zerbitzuak euskaraz jasotzea; Udalaren ordezkariekin eta langileekin euskaraz aritu ahal izatea (arduradunak, administrariak, teknikariak...); Udalak bidaltzen dizkigun idatziak, inprimakiak, foiletoak, dokumentuak... euskaraz jasotzea.
7. **Bake epaitegiarekin harremanak euskaraz izatea:** bake epaitegiko langileekin euskaraz hitz egitea; bake epaitegitik bidaltzen edo ematen zaizkigun idatziak, inprimakiak, dokumentuak... euskaraz jasotzea.

Gizarte arloak

Aurrekoan eskubide orokorrak eta administrazioari dagozkionak bildu genituen, eta honetan, berriz, gizarte bizitzako hainbat arlo bildu ditugu; guztiak ere garrantzitsuak eta gurekin harreman zuzena dutenak: osasungintza, irakaskuntza, merkataritza, zerbitzuak, lan-mundua, aisialdia-kultura-erlijioa eta komunikabideak. Denak joaten gara medikuarengana, edota erosketak egitera, edota ikasketak egitera, lan egiten

dugu, telebista ikusten dugu... Osasungintzan, irakaskuntzan, lanean, aisialdian, merkataritzan... ditugun harremanetan ere, jakina, hizkuntza eskubideak izan baditugu, eta horietxek bildu nahi izan ditugu zerrenda honetan. Ez dira, normalean, administrazio publikoaren atalak, baina horrek ez du esan nahi alor horietan hizkuntz eskubiderik ez dugunik.

IRAKASKUNTZA

1. Euskara ikasteko eskubidea: Familian, eskolan, eskualtegian... edota beste edozein bitartekoren bidez.

2. Euskaraz ikastea. Txikitatik hasita azken mailaraino euskaraz ikasteko eskubidea: haur-eskolan, eskolan, institutuan, lanbide heziketan, unibertsitatean...

3. Ikastetxearekin harremanak euskaraz izatea. Ikastetxetik bidaltzen diren oharrak, egiten diren deialdiak, erabiltzen diren inprimakiak, liburuxkak, publizitatea... euskaraz jasotzea. Ikastetxe-ko arduradun, langile eta ordezkariekin euskara erabiltzea.



MERKATARITZA

1. Harreman komertzialak eta kontsumitzaile gisa egiten ditugunak euskaraz egitea. Ondasun eta zerbitzuak saldu edo erostea, bankueragiketak, aseguruak, lan-kontratuak... Horek guztiek balio juridiko osoa izan behar dute.

2. Kontsumitzaileentzako informazioa eta publizitatea euskaraz jasotzea. Errotuluak, etiketak, publizitate oharrak eta kartelak, foiletokak...

3. Merkataritzako zerbitzuak eta enpresekin harremanak euskaraz izatea. Merkataritza zerbitzuek eta enpresek egindako aurrekontuak, proiektuak, fakturak, errezi-boak, agiriak... euskaraz jasotzea.



OSASUNGINTZA

1. Osasun zerbitzu osoa euskaraz jasotzea. Osasunbidearekin ditugun harreman guztietan euskara erabiltzeko eskubidea: jasotzen ditugun gutunak eta zitazioak, espezialistarekin egiten ditugun kontsultak...

2. Osasun etxean harremanak euskaraz izatea. Herriko osasun etxean harreman guztiak euskaraz izateko eskubidea dugu: pediatra, medikuak, erizainak, administrariak, deialdiak...



Zerbitzuak

Zerbitzuak, lan mundua, aisialdia-kultura eta komunikabideak bildu ditugu oraingoan. Hauek ere, aurrekoak bezalaxe, garrantzitsuak oso. Izan ere, denok dugu harremana zerbitzu-enpresekin (ura, gasa, argia...hornitzen dutenak, esaterako), edo lan egiten dugu, edo telebista ikusi, egunkaria irakurri, irratia entzuten dugu. Ez dira, normalean, administrazio publikoaren atalak, baina horrek ez du esan nahi alor horretan hizkuntza eskubiderik ez dugunik.

KOMUNIKABIDEAK

Informazioa euskaraz jasotzea. Irrati, telebista, egunkari edo aldizkari bitartez informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea daukagu, batez ere administrazio publikoarekin nolabaiteko harremana duten komunikabideetatik, telebista edo irradi publikoetatik alegia.



LAN-MUNDUA

Euskaraz lan egiteko eskubidea. Herritarren hizkuntza eskubideen errespetua izanen da muga bakarra



AISIALDIA-KULTURA-ERLIJIOA

1 **Era guztietako produktuak euskaraz eskuratzeko eskubidea.** Behar dugun edozein produktu gaztelaniaz eskura dezakegun bezalaxe (programa informatikoak, aldizkariak, gidak, bideoak, liburuak, jokoak...), euskaraz ere produktu horiek eskuratzeko eskubidea dugu.

2 **Euskarak tokia izatea kultur eta aisialdiko gertakari eta zerbitzuetan.** Euskarazko kultur ekintzak, udalekuak, proiektzioak, jaialdiak, hitzaldiak, zinea, antzerkia, ikastaroak, kultur eta aisialdi egitarauak, erlijiozerbitzuak...

3 **Elkarteekin eta erakundeekin harremana euskaraz izatea.** Era guztietako elkarteekin eta erakundeekin (gastronomikoak, kulturalak, kirol arlokoak, politikoak...) harremanak euskaraz edukitzeko eskubidea: oharak, jakinarazpenak, aktak, idatziak...

ZERBITZUAK

1 **Administrazioarentzat edo botere publikoarentzat lan egiten duten zerbitzu-enpresekin harremanak euskaraz izatea.** Administrazioa, Nafarroako Gobernuak edo udalek, esate baterako, zerbitzuak zuzenean eman beharrean, zenbait kasutan enpresen bitartez ematen dituzte: informazio zerbitzuak, kiroldegi edo kirol-instalazioak... Horietan, ahoz nahiz idatziko harremanak euskaraz izateko eskubidea dugu

2 **Dinarrizko zerbitzua ematen duten enpresekin harremana euskaraz izatea.** Herritarrentzako oinarritzko zerbitzuak askotan enpresen bitartez ematen dira: ura, argia, gasa, telefonoa, aseguruak... Enpresa horiekiko harremanetan, harreran, argibide, kontratu eta gainerako dokumentazioan... euskara erabiltzea gure eskubidea da.



ETXEPARE

beka



2004. urtean, Nafarroako hainbat udalek, Euskara Zerbitzuen bidez, literatur lehiaketa komuna eta indartsua sortzea erabaki zuten, Nafarroan euskal literatura bultzatzeko saririk apenas zegoela ikusita.

Aipatutako Euskara Zerbitzu horiek hartutako udalok Nafarroako ipar eta erdialdeko eremu geografiko zabala hartzen dute eta 130.000 biztanle biltzen dituzte. Beraz, honakoa hedapen handiko ekimen publikoa da, eta, ondorioz, eragin eta interes sozial zabala ere badu.

Literatur Sari honek, jakina, helburu batzuk ere baditu. Nagusiki honako bi hauek dira:

- 1.- Euskarazko literatur sormena eta produkzioa sustatu eta laguntzea.**
- 2.- Literatur lehiaketen alorrean erreferentzia izanen den saria sortzea Nafarroan.**

Etxepare Sariak datorren edizioan, lehen aldiz, *Etxepare album ilustratuen beka* izanen da. Etxepare Literatur Sarien bi urteko esperientziaren ondoren, edizio berrian euskarazko literaturan ahul dagoen esparruaren aldeko apustua egingo dute Udal eta Mankomunitateek, haurrentzako album ilustratuen aldekoa hain zuzen. Izan ere, album ilustratuek gero eta indar handiagoa badute ere, gutxi dira euskaraz sortzen direnak. Gainera, euskarazko album ilustratuen sorrera bultzatzen duen beka edo lehiaketarik ez dago.

Alde horretatik ekimen berri-tzailea dugu hau. Sari bakarra emango da, 6.000 eurokoa.

I. etxepare beka

Haurrentzako album ilustratuak sortzeko oinarriak

BAT

Sari honetara aurkeztu ahal izango dira 6 urtetik beherako haurrei zuzenduriko lan ilustratuak.

Proposamenak album ilustratuaren ezaugarriak izango ditu, hau da, osagarriak diren irudi eta testu laburren bitartez istorio bat kontatuko du.

BI

Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratugabeak izango dira. Ez da onartuko beste inondik moldatutako lanik, ezta aurretik saririk jaso duenik ere.

HIRU

Lehiaketan honela parte hartu daiteke:

- bakarka, testua eta ilustrazioa norberak eginez;
- binaka, batek testua eta besteak ilustrazioa eginez;
- hainbat pertsonak osatutako taldean.

LAU

Lanak DIN A-4 neurrikoak edo proportzionalak izango dira, betiere gehienez 35 cm-ko aldearekin. Albumaren luzera (testua eta marrazkiak barne) gehienez 24 orrialdekoa izango da (azala izan ezik). Testuak lerroarte bikoitza utzita idatziko dira eta ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko (zuriuneak barne).

BOST

Lehiaketan parte hartzen duten egileek honakoa aurkeztu beharko dute:

Testuaren sei kopia inprimatu.

Hiru irudi orijinal eta haien koloretako bost fotokopia.

Maketa bat, bertan testua eta irudiak (hiru orijinalak zein bes-

teen bozetoak) non kokatzen diren adierazten duena.

SEI

Lanak izengoitiaz izenpeturik egongo dira. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da, kanpoko aldean lanaren titulua eta egilearen goitizena izango dituen eta barruan egilea edo egileen datuak: izenabizenak, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, NANaren edota pasaportearen fotokopia eta egilearen aipamen biografikoa.

ZAZPI

Lanak helbide honetara bidaliko dira:

“Etxepare Beka”, Sakanako Mankomunitatea–Euskara Zerbitzua, Uriz kalea, 38. 31830 Lakuntza-Nafarroa.

ZORTZI

Orijinalak aurkezteko epea oinarri hauek argitaratzearekin batera zabaldu eta 2006ko azaroaren 30ean, 15:00etan itxiko da. Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna 2007ko martxoaren 30a izanen da.

BEDERATZI

Epaimahaia haur literatura eta ilustrazioan adituak diren pertsonak osatuko dute. Sakanako Mankomunitateko teknikari batek idazkari lanak egiten ditu (hitza izanen du, baina ez botorik). Ez

da saririk emanen epaimahaiaren iritziz gutxieneko kalitateko lanik ez badago. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.

HAMAR

Sari bakarra emango da, 6.000 eurokoa. Bekaren diru-kopuruaren erdia, izendatu bezain laster jasoko du irabazleak eta beste erdia, album amaitua entregatu eta epaimahaikoek onespenez emandakoan. Zergen atxikipena indarrean dagoen legediari jarraiki egingen da.

HAMAIIKA

Irabazleak saria jaso eta 6 hilabeteko epea izango du album ilustratua amaitu eta emateko. Ilustratzaileek lanaren ilustrazioak sarira aurkeztutako estilo berean eta kalitate berarekin egiteko konpromisoa hartzen dute.

HAMABI


Saririk gabeko lanak erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari. Epe hori igarota, eskatzen ez diren kopiak suntsituko dira.

HAMAIURU

Egilea izanen da album sarituaren jabea. Album ilustratua argitaratzen bada, egileak bekaren aipamena egin beharko du.

HAMALAU

Oinarri hauetan zehaztu gabeko zailantzen bat agertzen bada, epaimahaiak argituko du eta hark egiten ez badu antolatzaileek erabakiko dute. Sari honetan parte hartzeak oinarri hauek ezagutzea eta onartzea dakar.



Piropoak eta ligatzeko bideak

Bost minututan ligatzeko beharrezkoa duzu ondo prestatuta joatea.

Dutxatik atera berria zara eta jada ikusten duzu gauaren iluna, komune-ko leihotik. Ondo eta txukun jantzi zara eta hor zoaz kalera, gaueko giro berora sartzerara. Pare bat kale kruzatu eta aurkitu duzu eta aurkitu duzu gustuko taberna.

Oraindik, ez dira bete bi minutu eta zure joko eremura ailegatu zara. Eskuin-ezker begiratu eta “Ttak” neska batean gelditu dira begiak.

Hirugarren minutua bete da eta zure helburua oso gertu duzu, azkeneko bultzada hori falta lortzeko. Begira zaudelarik, konturatzen zara, bera, lepoa biratuta zuri begira dagoela. “Orain edo inoiz ez”, datorkizu burura, eta beragana hurbiltzen zara.

Laugarren minutua betetzear da, eta bien arteko kimika nabaria, hori seinale ona da, momentuz behintzat. Lehen agurra egin diozu, hondamendia uste duzunean, far goxo bat egingen du. Kopa batera gonbitu eta hizketan hasten zara, alkohola lagun duzula.

Oraindik, ez da bete bosgarren minutua eta ia lortu duzu. Konfiantza hartzen hari zareten bitartean besoa lepo gainean kokatu duzu eta bera hur-reratu zaizu, musu luze bat ematen diozue elkarri, eta: “nirekin atera nahi duzu?” bat botatzen diozu, infantila badirudi ere, bosgarren minutua, oraintxe bete da eta lortu duzu!





Ondoko hauek dira DBH 1 eta DBH 4eko institutuko ikasleak Ttanttun euskara elkarteak eta Urtxintxa hezitzaile eskolak aisia.net web. orriaren bidez, antolatu zuten piropo lehiaketara bidali zirenetatik DBH 4 ikasleek bozketa bidez, aukeratu zituztenak. Piropoek ezin zuten ez kopiatutakoak, ez itzujitakoak izan. Originalak behar zuten eta hortaz aparte, irudimena eta umorea baloratu dira. Gustua baduzue, on egin!

DBH 1

- Gaua iristen, zu zara bideratzen nauen argi bakarra.
- Zu sudurra bazina, ni mukia izango nintzateke zurekin jolasteko.
- Balea bazina, Ipinoxoll izatea gustatuko Jitzaidake zure barnean murgiltzeko.
- Zure begiek itsasoaren urdina daukate eta zure ezpainak eztiaren gozoa.
- Zelaian arrosak, margaritak eta krabelinak daude, baina, lorerik ederrena zu zara.
- Zure etxeko ispilu izango nintzateke, egunero, zure aurpegi ederra ikusteko.
- Zu basurdea bazina, ni ehiztaria izango nintzateke.
- Zu txoria izango bazina, ene maite polita, ni xixare.
- Eguzkiak lurra argitzen duen bezala, zuk nire bihotza argitzen duzu.
- Zure titiak ikustean, olibak jateko gogoa jartzen zait.
- Zure ezpainak hain dira goxoak, muxu ematean ezta jaten ari naizela iruditzen zait.
- Ene landare polita, a ze berde, ze gorri, arrosaren pare dituzu bi begi.
- Zu hasto izango bazina, udan berde, neguan gorri, ni harra izango nintzateke zure gainean ibiltzeko.
- Zure begiak eguzkia izango balira, zuri begira egongo nintzateke kiskali arte.
- Zuri begiratzen dizudan aldiro, nire ahoko izotz puska pixkanaka urtzen joaten da.

DBH 4

- Porru patata ez da ezer porrurik gabe, ezta ni ere zu gabe.
- Oh maitea! Zu zara nire garbantzu platereko txistor puskatxo goxoa.
- Zu harra, ni emea egingo dugu gaur umea?
- Nire eskusoinua bazina, botoiez botoi joko zintuzket.
- Ni katua banintz, eta zu sardina, ez nizuke hezur gozo horietako bakar bat ere utziko. - Gezurra dirudi nolako aurreratuak gauden, loreak eta dena dakite oinez ibiltzen .
- Aingeruak zeruan besterik ez daude jakingo banu, haietako bat zarela usteko nuke!
- Zoaz itzaletik! Bonboiak eguzkitan urtu dira eta.
- Zu zera nire eguneko eguzkia.



Bai Euskarari

Leitzaldean

Ekimenaren abiatzea eta faseak

Leitza, Goizueta, Areso eta Arano 2004. urtean sartu ziren Bai Euskarari Ziurtagiria ekimenean. Bertako euskalgintzak eta euskara zerbitzuak bultzatuta, Kontseiluari proposamena egin zitzaion eta prozesua abiatu zen.

Bi fase nagusi izan zituen ekimenak: lehendabiziko fasean, herritarren eta eragileen artean Bai Euskarari Akordioaren berri eman zen, eta ekimenaren inguruko giroa sortzen ahalegindu ziren.

Bigarren fasean, Kontseiluaren ize-nean lanean aritu ziren teknikariek (bat Leitza-Areson eta bestea Goizueta-Aranon), eragileak bisitatu zituzten, eta konpromisoak hartzeko eta ziurtagiria eskuratzeko proposamena egin zieten. Eskualdean eragile ugari dagoenez, nolabaiteko hautaketa bat egin

zen, eta horiengana jo zen. Prozesuan parte hartzeko gonbita, nolahi ere, lau herriotako eragile guztiei egin zitzaion. 150 gizarte eragilerengan jo zen. 2 hilabetez.

Bi fase horien bukaeran, azkenik, ziurtagiriaren banaketa ekitaldia egin zen, 2004ko uztailaren hasieran. Esan bezala, 78 eragilek lortu zuten ziurtagiria; beraz, 78 eragile horiek euskararen normalizaziorako konpromisoak hartu zituzten.

Bi urte hauetan Euskararekiko konpromisoa eta lana mantendu eta areagotu egin da, aurten 81 ziurtagiri banatu direlarik: Leitza 51, Areson 9, Goizuetan 19 eta Aranon 2

Poztekoa da, bi urteren ondoren Bai Euskarari Ziurtagiri kopuruak egonkortasun bat lortzeaz gain, Leitzaldeko eragileak lan ildo bati eutsi eta beren

elkarte, komertzio eta enpresetan Euskara normaltasunez erabiltzeko bide berriak irekitzen ari direla.

Leitzaldeko errealitate linguistiko eta kulturala urte askotan zehar erakunde, eragile eta herritarrek egindako lanaren ondorioa da. Denbora luzean zehar egindako lanari jarraiki, Bai Euskarari Ziurtagiriak, jorrotutako bideak zein diren identifikatu eta hortik aurrera joateko proposamenak eskeintzen ditu.

Honela elkarte, komertzio eta enpresa bakoitzak bere funtzionamendu eta baldintzen arabera urtetik urtera euskararen erabilera normalizatzeko helburuak erabakitzen ditu.

Azpimarragarria da norberak irekitako bideak gainerakoentzat ere erabilgarri izaten direla eta aurten lan politak eta interesgarriak ikusteko aukera izan



dugu: Idatziz eta ahozko komunikazioan euskaraz aritzen diren elkarteak, lanean euskara oinarri bezela hartuz bezeroen arabera publizitatea ere euskaraz edo elebitan egiten duten enpresak, konpromisoa bera ikastetxean parte hartzen duten eragile guztiengana komunikatu eta ailegatu arazteko ekitaldi eta lanak, administrazioari zerbitzuak eta komunikazioak gutxienez euskaraz izateko egindako eskariak...

Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa ekitaldia ospatu genuen ekainaren 30ean festa giroan. Leitzako herriko plazan, hain zuren ere. Ekitaldia hasi aurretik txalapartariak txalaparta jo zuten.

Ekitaldian aurkezle berezia izan genuen Cristina. Honako hauek izan ziren hizlariak: Xabier Mendiguren (Kontseiluko idazkari nagusia), Sagarrio Lasarte (Jarraipen batzordeko kidea, Erleta eskola) eta Kontxi Zozai (IKA). Bestalde, han izan ziren ere Leitzako alkate Patxi Saenz eta Aresoko alkate Mikel Baraibar, ekitaldiari udalen bebesa emateko.

Jarraipen batzordeko Sagarrio Lasartek hitz batzuk esan zituen: “Bai Euskarari Akordioa eta Konpromiso prozesua abiatu genuenetik 3 urte pasa dira; herriko gizarte eragileak nahiz erakundeak euskararen alde aurrerapausoak emateko gai izan gara eta harro egon gaitezke egindako lanarekin. Neri dagokidanez, hemen aipatuko nuke aurten eskolan egindako ekintza euskararekiko KONPROMISO maila hobetzeko asmoz. Jaialdi bat antolatu genuen non bertan ikasle eta irakasle guztiak aurretik hitz egindako eta onartutako konpromezu bat sinatu genulen. Konpromezua hau izan zen: gure artean beti euskaraz egitea eta euskara ahalik eta era txukunenean erabiltzea. Jai giroan ospatu ondoren gurasoei horren berri eman genien. **BERAZ, DENBORA LUZEAN ZEHAR ESKOLAN EGIN DUGUN LANAREKIN BATERA, Ekintza xume hauekin eta elkarlana bultzatuz gure helburua lortuko dugulakoan gaudede. Garrantzitsua da herriko 58 enpresa, saltoki eta bestelako entitatek “Bai**

Euskarari Ziurtagiria” berritu izana eta 9 eragile berrik konpromisoaren bideari ekin izana honela, herritarron hizkuntz eskubideak bermatuko baitira. Horregatik, Leitza eta Aresoko Jarraipen Batzordearen izenean zoriondu nahi zaituztet. Leitza eta Areson euskararen presentzia handitzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea ezinbestekoa da. Ezin dugu orain atzera egin. Ahalegin horretan Leitza eta Aresoar guztiok bat egin dezagun, euskararen etorkizuna bermatua izan dadin”.

Gero Kontxi Zozaiak Bai Euskarari Ziurtagiria duen Ikako ordezkariak hitz egin zuen. Hauek dira bere hitzak: “euskararen normalizazioa lortzeko Leitza egiten ari garen lana oso positiboa da. IKA euskaltegiak, eskolak, institutuak, udalak, euskara mankomunitateak, euskara zerbitzuak, irriatiak, kultur taldeak, kultur elkarteak, denok gara ezinbestekoak, gure herrian euskara normalizatu nahi badugu. Lan handia egin dugu orain arte, baina aurrerantzean ere euskarak denok behar gaitu. Denoi baitagokigu



urratsak ematea. Euskaraz bizi nahi duen jendea geroz eta gehiago gara. Horregatik hartu ditugu konpromisoak eta horren adierazgarri gaur jasoko dugun ziurtagiria dugu. Gainera, konpromisoak hartu ditugun erakundeok bidea irekitzen ari gara beste batzuk bide bera har dezaten. Oraina ahaztu gabe, batez ere etorkizunari begira ari gara lanean. Leitza eta Areson euskaraz ikasi, lan egin, erosi, informatu, dibertitu, azken batean euskaraz bizitzea errazago lortuko dugu guztiok bide honetatik segituz gero.

Xabier Mendigurenek, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren idazkari nagusiak, hitz batzuk esan zituen: “6 urte igaro dira jada Kontseiluak Bai Euskarari Akordioa abian jarri zuenetik eta 3 Leitza eta Areso proiektu honetan parte hartzen hasi zirenetik. Zoritxarrez guztiontzat, euskararen egoera oraindik ez da guri gustatuko litzaigukeen bezain ona. Zorionez, ordea, hau bezalako konpromisoek sustatzen dute gure hizkun-

tza. Maiz esaten da, euskara guztiona dela, horregatik hain zuzen, guztion lana da euskara bultzatzea. Honen adibide garbia dira Leitza eta Areso: 58 ziurtagiri banatuko ditugu eta hauetatik, 8 berri. Etengabe goaz aurrera konpromisoaren bidean. Dagoeneko 1280 entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria, Euskal Herriko 100 herritan baino gehiagotan egon gara jada. Gaur bertan Leitza-Areson eta Goizuetan bertan egonen gara. Aste honetan gainera, Barañainen eta Azpeitian ere izan gara. Leku hauek guztiek, bere berezitasunak dituzte. Leitza kasuan esaterako, aipagarria da nola uztartu duzuen euskararen normalizazioa eta festa. Gaur esate baterako, bertsolariak, dantzariak... bildu gara hemen guztion artean euskarak Leitza eman dituen aurrerapausoak ospatzeko. Pozgarriena da ikustea iaz konpromisoak hartu zenituzten entitateek urtean zehar bete eta neurri berriak hartu dituzuela, batzuk maila gainditu duzuela zerbitzua euskaraz

ematera iristeraino eta entitate berriak gehitu direla prozesura. Bukatzeko esan guztion lanarekin errazagoa izango dela euskararen normalizazioa lortzea. Bai Euskarari Ziurtagiriak balio beza konpromiso hori bideratu eta gizartearen aurrean harro azaltzeko. Kontseiluan ziur gaude denon konpromisoaren bidez euskararen egoera hobetuko dugula, dagokion tokia berreskuratuko duela”.

Unai Elizasu eta Diego Riañok beren ekarpena egin zuten bertsoak kantatuz. Jarraipen Batzordeko kideek eta Xabierrek ziurtagiriak banatu zituzten. Ondotik argazkia atera genuen. Dantzariak Ziurtagiridunei aureskua dantzatu zieten. Ardoa eta jaki batzuk dastatzeko aukera ere izan zuten Ziurtagiridunek. Festa giro ederrean amaitu zen ekitaldia. Zorionak beraz orain arte egindako guztiagatik, zuetako bakoitza sortzen ari zireten posibilitateengatik eta euskararen inguruan elkarlanerako irikitzen ari zireten bideengatik.



Kontseiluak hainbat kanpaina ari da egiten eta horietako bat udan ere, Bai Euskarari

Geroz eta gehiago gara euskara eguneroko bizitzan erabiltzeko apustua egiten dugunok. Hala, 1250 enpresa, saltoki eta era guztietako entitateek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria. Uda hasi berri den honetan, Kontseiluak euskararen alde entitateek eta norbanakoez egiten dituzten ahaleginak uztartu nahi ditu. Ildo honetatik, Kontseiluak 'Udan ere, Bai Euskarari' kanpaina jarri du abian bigarren urtez, euskal gizarteari, udan ere, euskara aintzat hartzen jarrai dezan eskatzeko.

"Euskal Herrian zehar turismoa egingo dutenei euskaraz mintzatzeko eta euskarazko zerbitzuak erabiltzeko eskatu nahi diegu", azaldu dute Kontseiluko ordezkariak. EUS-TAT, Euskal Estatistika Erakundearen arabera, EAeren turismo gastuaren %40 inguru bertako biztanleek egindakoa da. Hori dela eta, Kontseiluak kostaldeko herrietan uda pasatzen dutenei, hiriburuak bisitatuko dituztenei, landetxe-etan izango direnei edota Euskal Herriko hainbat herri eza-gutu nahi dituztenei, euskara erabiltzeko deia egiten die. "Gure artean euskara urteko egun guztietan sustatu behar dugu", adierazi dute.

Horretarako, Kontseiluak gogorarazi nahi die barne turista euskaldunei euskarazko zerbitzua eskaintzen saiatzen diren entitateen zerrenda eskuratzeko aukera ematen duela www.baieuskarari.org webguneak. "Gune honetan Bai Euskarari Ziurtagiria duten enpresa, saltoki, jatetxe, hotel, kultur jarduera eta beste entitateen izenak ikus daitezke, hau da, euskara erabiltzen saiatzen direnak", azaldu dute.

Herrika, sektoreka eta Bai Euskarari Ziurtagiria mailaka ikusteko abagunea eskaintzen du www.baieuskarari.org-ren 'nortzuek dute' atalak. Esate baterako, Donostia aukeratzu gero, Ziurtagiridunen izenak agertuko dira eta bezeroak euskarazko zerbitzua jaso nahi badu, bertara jotzeko aukera duela jakingo du. Gainera, webgunean Bai Euskarari Ziurtagiriari buruzko azalpenak irakur daitezke: zer den, mailen deskribapena eta zer egin behar den hura eskuratzeko, besteak beste.

Horretaz gainera, Kontseiluak udan ere euskara erabiltzera animatzen duen publizitate kanpaina jarri du martxan. Euskal Herri osoko irrati, aldizkari eta egunkari euskaldunetan zabalduko da 'Udan ere, Bai Euskarari' mezua.



Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa ekitaldia 2006 Leitza

**Guztira 1.300 ziurtagiritik gora banatu dira dagoeneko,
horietatik 57 Areson eta Leitza**

**IRAKASKUNTZA eta
FORMAZIOA**

Amazabal BHI
Aresoko eskola
Erleta Haur eta Lehen
Hezkuntzako Ikastetxe
Publikoa
Haur eskola
Leitzako euskaltegia
Maddalen Lazkano

MERKATARITZA

Biok jantziak
Dia supermerkatua-
Xumutxo, S.L.
Erbiti farmazia
Garziarena arrandegia
Kapritxo
Lizarraga harategia
M. Plaza Tuñon farmazia
Perurena harategia
Urkiola harategia
Zortziko labetxea
ALIPROX

OSTALARITZA

Sagasti jatetxea
Arakindegia jatetxea
Gaztañaga taberna
Musunzar ostatua
Peritza taberna
Torrea taberna
Aritzeta landetxea

**ELKARTEAK eta MUNDU
ASOZIATIBOA**

Asketa abesbatza
"Denok bat" guraso elkarte
Amazabal guraso elkarte
Aresoko guraso elkarte
Larrea elkarte
Usoa ehiztarien elkarte
Etxetxuria
Pake toki elkarte
Areso kirol elkarte
Aurrera kirol elkarte
Guratz mendi elkarte
Mendibil mendi taldea
Kultur taldea Areso
Kultur taldea Leitza
Leitzako jubilatuen elkarte

Saharar herriarekin
elkartasuna taldea

ZERBITZUAK ETA ENPRESAK

Karrape irratia
Leitza asesoria S.L
Gerardo Arrupea Mapfre
Gabriel Saralegi
Ardotegia lenitz
Etxe-tresnak S.L.
Fisioetxea
Gaztelu iturgintza
Gorritz arkume eta gaztak
Gorritz S.L.
Leitza garajea
Leiza mandriladora
M.E. Latz
Talotegia
Zurlan zurgindegia
José Larrañaga S.A
Goiko lorezaintza



Udan ere

bai euskarari



Udan ere Bai Euskarari! Sartu www.baieuskarari.org

webgunean eta ikusi zeintzuk diren Bai Euskarari

Ziurtagiria duten ostatu, hotel, jatetxe eta saltokiak,

eta kontuan har itzazu!

Ez ahaztu, udan ere bai euskarari!

Ezetz asmatu

Marmari aldizkariko aurreko aleetan ere ariketa hau bera proposatu genizuen. Orduan asmatu ez zenutenek beste aukera bat duzue honakoa. Hala ere, aurrekotan inor ezagutu ez bazenuten, kezkatzen hasteko arrazoiak badituzue!

Oraingoan argazki zaharrak eta berriak dituzue. Oso erraza jarri dizuegu asmatzeko, beraz, oraingoan asmatzen ez duzuenok ez duzue barkamenik.

Baina tira, hitz gutxiago eta goazen harira: argazki hauetan agertzen direnak ezagutzen dituzu? Denak? Ongi erreparatu eta ea guztiak ezagutzeko gauza zaren.

Pertsonai ezkutua

Batzuetan errazegi jarri dugu, beste batzuetan zailegi. Ez dago beti asmatzerik. Nolanahi ere, zaila edo erraza den oso subjektiboa da, ezta? Zuri akaso

zaila eginen zaizu, baina zure ondokoak berehala asmatuko du. Ezinezkoa, behintzat, ez da, eta saiatuz gero ziur atzean nor dagoen asmatzen duzula.





LU DOT EKA

Ludotekaren bidez Leitzan aisia eta kultura uztartzeko beharrari erantzun nahi diogu. Testuingurua kontutan hartuta, hauek lirateke helburuak: haurren nortasuna garatzea, aisialdirako gunea zabaltzea elkarbizitza eta errespetua oinarri izanik, umearen garapen osoan laguntzea eta bereziki ume euskaldunengan erreparatu beraien hizkuntza garapenak hala eskatzen duelako.

Proiektuaren oinarriak haurren eskubideak eta jostailua nahiz jolasa haren garapen osorako baliabideak dauzka. Proiektua heziketa ludikoan oinarritzen da baloreak sustatzeko eta garapen osoa bultzatzeko.

Ludotekak harreman berriak egiteko bidea irekitzen du, pertsona ezberdinen arteko ezagupena errazten du.

Ludotekak auzo oso bat berpiztu lezake. Horregatik, nolabait, komunitatearen bizitzan animazio gunea izan liteke. Haur koxkorrenei elkartasuna, konpartitzeko beharra, jostailuen demokratizazioa edota denon objektuekiko norberaren erantzukizuna izaten erakuts diezaieke. Ludotekak umeari gizartearen arauak onartzea ikasten laguntzen dio eta, beraz, hobeki integratzen.

Ez da erraza haurtzaroa galdu duen helduarentzat seme-alaben unibertso ludikoan sartzen. Ludotekak lagundu dezake, jolasaren bidez, familiaren curriculum hurbilena berpizten.

Helduak laguntzen ahal dio umeari era askotara ludotekan, garapen mailaren eta haurren interesen arabera. Horrela bada, hautaketan lagun diezaio-

ke, edota bere gisara jolasten utzi; era berean ikus dezake umearen jolasteko modua edota ekingiza zehatzagoetan parte hartzea animatu, esate baterako ipuinak kontatzen, umeari gustatzen zaizkion jolas edo liburuetan oinarrituta.

Jolasaren eta heziketaren bidez garatzen du pertsonak inteligentzia, nortasuna eta afektibitatea. Horregatik elikadura, etxebizitza eta osasunerako eskubideekin batera, ezinbestekoa da haurren estimulazio psikosoziala, intelektuala eta afektiboa sustatzea jolasaren bitartez. Etapa honetan jolasa sozializazio prozesu oinarritzkoa da. Eta premia honi erantzuteko sortu ziren ludotekak, garapen osoan laguntzeko eskolaz kanpoko baliabideak.

Ludoteka umearentzat bereziki sor-



tutako entitate rekreatibo-kulturala da eta bere helburu nagusia haurren izaera jolasa eta jostailuen bidez garatzea da. Horretarako umearen jolasa bideratu, bultzatu eta sustatzen da haurrari behar dituen baliabide materialak nahiz orientabideak eta laguntzak eskainiz.

**Ludotekak jolasteko gune aproposa eskaintzen du, adin bakoitzeko interesei eta gaitasunei erantzuteko modukoa. Gainera, haurraren esku-
ra jartzen ditu era askotako jostailu eta material ludikoak; halaber besteekin egoteko eta adin nahiz ezaugarri ezberdinetako harremanak egiteko topagune bilakatzen da ludoteka.**

Gune honek, jolasteko eta jolastuz ikasteko eginiko gune honek, haurraren garapen osoan du eragina.

Espazio ludikoan umearen ahalmenak osatu eta garatzen dira, gaitasun fisiko, psikologiko, sensorial eta ezagupenekoak horretarako pentsatutako ekintzen bidez.

Era berean, **ludotekak haurtzaroren alde soziala osatzen du**, taldean jolastuz ikasten baita elkarbizitzarako arauak errespetatzen, laguntza ematen eta jasotzen, parte hartzen eta besteak ulertzen. Gainera, ezberdintasun soziokulturalak gainditzeko balio dezake. Jolasa eta jostailuaren bitartez umeez ikas dezakete errespetuan bizitzen, oinarriko balore gisa bereganatzen eta elkarbizitzarako ezinbesteko tresnatzat hartzen. **Ludotekak erantzukizuna sortzen du**, baita bizitza soziala ere; harreman berriak sortzen ditu norberarena ez den objektuaren inguruan, konpartitzen den objektuaren inguruan alegia.

Familia txikiagoak, gurasoentzako lan-ordutegi gero eta zabalagoak eta parte hartu baino gehiago begiratu egi-

ten duen haurra sortu dituen gizarte honetan oso garrantzia handia du jolasak, hots, ziurtasuna eta elkarbizitza ardatz nagusi dituen guneak eraikitzea.

Ludotekak familiari gune zurrak eta atseginak eskaintzen dizkio, haurraren garapenerako proposak diren materialak eta modelo zehatzak eskainiz. **Ludoteka umeez eskolaz kanpoko ekintzak burutzeko alternatiba da.** Ludoteka haurtzaroren lagun bikaina da eta gurasoentzat laguntza ederra.

Gure proiektuaren helburua umeen gaitasunak, abileziak, jarrerak eta ezagupenak garatzen laguntzea da -adina eta genero ikuspegia aintzakotzat hartuta beti-, alor fisikoan, sozialean, psikologikoan, hizkuntzarenean eta interkulturean, beren bizi baldintzak eta kalitatea indartzeko, sozializazioa hobetzeko eta partehartze giro batean hezten laguntzeko. Hobeki identifikatzeko, onartzeko eta aurrera eramateko beren eskubidea; hau guztia jolasaren bidez.

HELBURU OROKORRAK

1. Umeen garapen kognitiboa, psikomotorea, afektiboa eta soziala garatzea, eta jolasen eta jostailuen egokitzapenaren bidez haien irudimena eta sormena indartzea.

- Umeen animazio-ekimenak burutzea, jolasa eta jostailuarekin lotutakoak batez ere.
- Umeei beren interes eta gaitasunen arabera aukeratutako jostailuak uztea.
- Jostailu sinpleak asmatu eta egitea.

2. Talde-lanaren erantzukizunean sakontzea, hala nola erabilerak kolektiboko materialaren zainketan; halaber jarrera berekoiak baztertzea eta konpartitzeko joera erraztea.

- Hondatutako jostailuak konpontzea.
- Taldean jolasteko eta jolastuz elkarrekin bizitzen ikasteko gune egokia eskaintzea.
- Taldean jolastea bultzatzea eta Berriozarko umeen arteko adiskidetasuna sustatzea.

3. Elkarren arteko jarrera ez sexistak bultzatzea eta sexuaren araberako sailkapenak baztertuz ekimen ludikoak programatzea.

4. Umearen garapenerako jokabide okerrak garaiz ikustea, eta zuzentzeko beharrezkoak diren estrategiak martxan jartzea.

5. Gurasoen eskakizun pedagogiko eta heziketakoei harrera egin eta laguntzea, ludotekaren dinamikan gurasoak ere inplikatzuz.

- Orokorrean helduekiko komunikazioan umeari laguntzea, eta partikularrean gurasoekikoan.
- Gurasoei aholkuak ematea umei erosi behar dizkieten jostailuen inguruan.

6. Biztanleriak duen kultur errealitatearen aurrean begirunezko jarrekin bultzatzea, elkar ezagutzeko bideak ezarritik. Era berean, ume inmi-granteen parte hartzea bermatzea programatutako ekintzetan.

HELBURU SOZIOLINGUISTIKOAK

Herriko haur euskaldunei beren eskola-formazioaz gain hizkuntza-gaitasunak garatzeko gunea eskaintzea, erregistro ez formalak lantzeko beharrari erantzunez.

METODOLOGIA

Heziketaz dugun kontzeptuari jarraiki, ludotekaren metodologiak honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Partahartzailea:** haur guztiek hartuko dute parte erabakiak hartzerakoan eta jolasak nahiz jostailuak aukeratzekoan.
- Dinamizatzailea:** monitoreek etengabe bultzatuko dute umeen parte hartzea.
- Praktikoa:** errealitatean oinarritutako ekintzak eginen dira, umeen interesekoek lehentasunak izanen dutelarik.
- Komunikatiboa:** haurren iritzia ezinbestekoa da.
- Dibertigarria:** helburu nagusia umeek ongi pasatzea da.
- Kooperatiboa:** monitore eta haurren arteko kooperazioa oinarritua izanen da proiektua aurrera eramateko garaian.



Aurten Leitzako Udalak eta Euskara Zerbitzuak **ludoketa** antolatu dugu, eta horretarako Dindaia fundazioaren laguntza izan dugu.

Aurtengo ikasturtean ludoteka apirila eta maiatzaren egon da zabalik. **3-12** urte bitarteko haurrei zuzendua dago. Aurten ez da sortu lehen hezkuntzako talderik. 13 haurrek eman dute izena. Astean 2 egunez zabaldu dugu haur hezkuntzako talde bat besterik ez delako izan. 2 orduko saioak izan dira. Leitzako Udalak lehenengo solairuan dagoen erabilera anitzetako gela egokitu du ludoteka sortzeko. Gela handia da. Ludoteka txokoetan banatua dago: eskulan-txokoa, etxe-txokoa, ipuin-txokoa, puzzle-txokoa...

Heldudan ikasturtean ludotekak aurera jarraituko du. Urrian hasteko asmoa dugu. Ludotekak urria hasieratik ekaina maiatza amaiera arte iraungo du, biak barne. Hainbat aldaketa egingo dira, baina oraindik badira zehaztu gabeko hainbat kontu: ordutegia, ordu kopurua eta abar.

Bestalde, joan zen urtean bezala, aurten ere **Haur Txokoa** antolatu dugu Leitzako Udala, Euskara Zerbitzua eta guraso talde baten artean. Aurten 45 haurrek eman dute izena, iaz baino 23 haur gehiago.

Aurtengo edizioan aukera gehiago eman ditugu. Hilabete osoa aukeratzeaz gain 2 aste-ko aukera ere bazegoen. Bestalde 2 anai-arrebek izena eman gero matrikula merketu egin dugu. Izen ematea 012aren bidez egin da., eta heldudan urtean ere horrela egingo da.

HAURREN GARAPEN EZAUGARRIAK: GARAPEN FISIKOA, GARAPEN PSIKOLOGIKOA, GARAPEN KOGNOSZITIBOA, GARAPEN SOZIALA ETA GARAPEN SENTSORIALA.

GARAPENAREN ETAPAK

4TIK 6 URTE BITARTE:

- Adin honetan ekintza fisiko osoak egiteko gai izaten dira.
- Ipuinak entzun eta kontatzea gustatzen zaie.
- Beraien irudimen eta sormen ahalmena bete-betean daude.
- Adin honetan mugituak ipurterreak, kuxkuxeroak eta enerjiaz beterikoak dira.
- Txotxongiloak, gorputz adierazpena, dantza eta edozein motatako ariketak gustatzen zaizkie.
- Eskulanean sormen eta irudimena lantzea atsegin dute, eta gogoz ekiten diete.
- Kuboekin, makilekin, egurrarekin jolastea gustatzen zaie, dorre eta gaztelu handiak eraikitzeko.
- Ekintzak egitean haien ahalegina eta kemena onestea gustatzen zaie.
- Animaliak imitatzeak eta antzerkia egiteak irudimena pizten die.
- Masa, lokatz, plastilina eta koloreekin jolastea atsegin zaie.

7TIK 9 URTE BITARTE:

- Bere izenez deitzea atsegin dute, kontutan har daitezen iritzia ematerakoan (identitatea finkatzen ari dira).
- Etengabe haien esfortzua errekonozimendua behar dute.
- Jolas kolektiboak arauak ulertzen eta errespetatzen laguntzen die.
- Piraten, maitagarrien e.a.rren liburuak irakurtzea gustatzen zaie.
- Teknika desberdinekin marraztea atsegin dute (koloreak, akuarelak, e.a.)
- Taldeka jostatzen dira, laguntasun harremanak egiten dituzte, konpartitzen badakite.
- Munduarekiko kezka dute, ikertzen eta arakutzen dute.
- Familiak bere bizitza eta garapenarenean garrantzitsua da.
- Egonezinak, kuxkuxeroak, bapatekoak eta kontraesankorrak dira.
- Mahai-jolasak atsegin dituzte.
- Antzezlanak eta antzerki obrak gustatzen zaizkie.
- Hazitzeko gogoia izugarria da (helduak izatera jostatzen dira).
- Ez zaie talde mistoetan parte hartzea gustatzen, eta jenero bereko taldeak osatzen dituzte.
- Garrantzitsua da adierazpen askatasuna izatea, bai beraien eritzitari dagokionean eta baita beraien arazoei dagokienean.
- Edozein materialarekin sortu eta asmatzea atsegin dute.

10ETIK 11 URTERA:

- Independienteak izaten hasten dira, autonomoak, arduratsuak.
- Ingurukoei atsegitea gustatzen zaie.
- Sentiberak eta baikorrak dira.
- Lanerako joera dute baina sarrituak izatea gustatzen zaie.
- Aktiboak izatea eta lehiatzea atsegin dute.
- Analitikoak eta kritikoak izaten badakite.
- Mahai jolas eta talde jolasetan partehartzea lakete dute.
- Txangoak eta bildumak haien gustokoak dira.
- Erabakiak hartzen eta ideiak espresatzen badakite.
- Buruhausteak egin eta albumak osatzea gustatzen zaie.
- Irristaketa, igeriketa, kirola egitea, txirrindularitza, gogoko dute.
- Animaliak eta naturaren inguruko interesa azaltzen dute.
- Ikerkuntza biziki gustatzen zaie.
- Instrumentoak jotzea atsegin dute.
- Abestiak konposatu eta olerkiak asmatzen dituzte.

13TIK 15 URTERA:

- Los amigos y las amigas son importantes en esta edad.
- Amplian las relaciones interpersonales
- Son entusiastas y más responsables.
- Les gusta dibujar, pintar, el graffiti.
- Son extrovertidas/os y persistentes.
- Txirrindulan ibiltzea, pasiatzea, kirol ekintzatan parte hartzea gustatzen zaie..
- Txapelketak eta lehiaketak burutzen dituzte.
- Arazo desberdinak aztertzea gustatzen zaie, hausnarketak egitea..
- Haien giroan popularrak izatea maite dute.
- Telefonoz aritzea, irakurtzea, musika entzutea, zinemara joatea gustatzen zaie.
- Besteen maitasuna eta afektoa jasotzea atsegin dute.
- Bolada aktiboetatik pasiboetara pasatzen dira.

IZEN-ABIZENAK EUSKARATZEA ERRAZA ETA LABURRA DA. ORAIN DUZU HORI ALDATZEKO AUKERA

Euskal izen-abizenak badituzu, baina agiri ofizialetan erdal grafian agertzen baldin badira, **ORAIN** duzu hori aldatzeko aukera. Gaur egun egin beharrekoak oso errazak dira, eta denbora motzean egin daitezke erroldatuta zauden herriko Erregistro Zibilean Udaletxean bertan.

IZENA EDO ABIZENA EUSKARATZEKO ETA ALDATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

1. Eskatzailearen erroldatze agiria (Erroldatua zauden herriko udaletxean eskatu).
2. Eskatzailearen hitzez-hitzeko jaiotze agiria (herriko udalean edo Iruñeko Erregistro Zibilean eska dezakezu).
3. Nortasun agiriaren fotokopia etoriginala.

OHARRA:

- Aurreko dokumentuak 18 urtez gorakoentzat dira.
- Adingabeak abizena aldatzeko derrigorrezkoa da gurasoekin bertaratzea eta famili -liburua aurkeztea.
- Amak edo aitak abizena euskaratuz gero, adingabeko seme-alabena automatikoki aldatzen da.
- Izena edo abizena aldatu nahi baduzu Iruñeko Erregistro Zibilera jo beharko duzu eta eskaera egin.

KONTSTULTARAKO TELEFONOAK:

Leitzako Bake Epaitegia: 948 610 866 (Astelehenetik ostiralera 10:00-14:00, asteakenetan ez daude).

Iruñeko Erregistro Zibila: 84 84 24 008

Gainerako herrietan erroldatuta zaudeten udaletxera joan ohiko ordutegian.

Euskara Zerbitzua: 948 510 814

ZURE IZEN-ABIZENAK EUSKALDUNDU:

Zure euskal abizenak euskal grafiara zuzendu nahi baduzu:

- Cestau >> Zestau
- Sagastibelza >> Sagastibeltza
- Alduncín >> Alduntzin

Zure izena zuzendu edo euskaratu nahi baduzu:

- María >> Miren
- Iciar >> Itziar

DENBORAPASAK

1. Animalia hauen izenen letrak nahastuta daude. Ea zuzen ordenatzen dituzun.

HEOALI.....

ZIRAEDU.....

LFNATRAE.....

RIFAJA.....

IMTUXA.....

ODKROIKLAO.....

2. Lauki hauetan zenbakiak koka itzazu batetik bederatzira. Batuketaren emaitza beti 15 izan behar du. Bertikalean, horizontalean ala diagonalean batu.

EROSKOPOA



Aries: egia da gauza garestiak gustatzen zaizkizula, baina...Begiratu al duzu egun hauetan zure kontu-korronteko diru kopurua?



Taurus: litzarkeraik asko guztatzen zaizkizu, jakina, baina zure amak ba al daki zenbat diru gastatuko duen dentistarengana joan behar izateagatik?



Gemini: A ze zorte txarra! Gabonetako loteriarik ez zaizu egokitu, baina ez etsi, datozen gabonetan egokituko daki-zuke.



Cancer: musika klasean txirula jotzean, ez ahaztu airea ondo hartzea; bestela, itotzeko arriskua izanen duzu.



Leo: erosketak egitera joango zara, eta erosketako zerrenda galduko zaizu. Aurten, merkealdirik gabe geratuko zara.



Virgo: ez erosi animalia gehiago; bestela, zure etxeak zoo baten antza izanen du.



Libra: neguan hondartzara joaten jarraitzen baduzu, medikuarenean bukatuko duzu, dudarik gabe. Hobe duzu orain joatea, besteak bezala.



Escorpius: futbolaren helburua gola sartzea da, baina ez zeure atean. Punteria zorroztu, edo atezaina zurekin haserretuko da.



Sagitaris: bizikletaz joaten bazara, jantzi ezazu kaskoa; ez ahaztu aholku hau hilabete honetan behintzat.



Capricornius: dirua bitxikerietan gastatzen baduzu, premiazko gauzak reosi behar dituzunean, dirurik gabe egonen zara.



Aquarius: igerilekura joaten bazara, busti egingo zara. Mendira joaten bazara, gora egin beharko duzu. Ez nekatu, txo!



Piscis: irakurtzea ona da, baina ez ikaragarritzko liburuak, bestela gauean ezin izanen duzu-eta lorik egin! Tentuz ibili.

zer diozu?

eta zuk,

Joxerra Intxausti



Leitzan zein konponketa egingo zenituzke? Frontoiko atea irekiko nuke, eta arkixkilekoa ere bai; kirola egin nahi duen edonor sar dadin.

Eguraldiak eragiten al du zure animoan? Bai asko. Udaran eguraldi txarra egiten badu batez ere.

San Ferminak ala Leitzako festak? Leitzako festak.

Zein musika mota edota talde gustatzen zaizu? El koala: bere korrala eta guzti.

Ba al dakizu zer den UEMA? Uste dut baietz.

Zer uste duzu falta zaiola Leitzari? Lanpostuak sortuko dituen lantegiren bat, herria berpizteko.

Zerbait soberan? Tabernako ordutegi zorrotzak. Gazteak nik herrian ikusi nahi ditut.

Zein da Leitzako txokorik ederrena zure ustez? Trenbidea

Eta zein zakarrena? Kanposantua, nahiz eta lorez beteta egon.

Leitzako kaleen izenak ba al dakizkizu? Bai.

Kale izenak ongi jarrita daudela uste al duzu? Ez dakit. Ez dut inoiz pentsastu.

Ostiraletako azkokara joaten al zara? Ez. Lanean aritzen naiz.

Jendeak gauza asko erosten al ditu azokan? Susmoa dut gero eta jende gutziago bertaraten dela.

Lanbidea aukeratu ahal izanez gero, zer aukeratuko zenuke? Oraingoarekin konformatzen naiz. Eskatzekotan eskatuko nuke orutegi laburragoa duen lana.

Beste herriren batean biziko al zifateke? Non? Ez naiz Leitzan jaioa, baina Leitzarra sentitzen naiz eta Leitzan gustura bizi naiz.

Arantxa Iparragirre

Leitzan zein konponketa egingo zenituzke? Leitza herrian bertan etxe asko eraiki eta beste asko konponetzen ari dira. Nik hortaz gain erreka bazterrak txukunago mantentzeko saiakera egingo nuke, maiztasun batekin, arbolak behar denean kimatuz, auzolanean. Baina hori ez dago hemen modan.

Eguraldiak eragiten al du zure animoan? Bai. Eguraldi onarekin pereza gutxiago dut haruntza edo honuntza ibiltzeko, kuestioa lana dudala eta ez naizela nik nahi nukeen adina ibiltzen.

San Ferminak ala Leitzako festak? San Ferminak ez ditut usaitu ere egin azken 7 urteetan, beraz, Leitzako pestak.

Zein musika mota edota talde gustatzen zaizu? Hortan aukera zabala eta oso desberdina egin nezake, gaurkoan kantautore euskaldunak hautatu ditut: Lete, Patxi Sainz, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda...

Ba al dakizu zer den UEMA? Bai. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. Euskal Herrian udalerrri asko bertako partaidea da Leitza bezala. Sartzen azkena Alegia izan da.

Zer uste duzu falta zaiola Leitzari? Seguru gauza asko, baina hemen zehaztea ez da erreza. Akaso turismoari begira lana egitea. Eta autobusen ordutegiak aukera zabalagoak ematea.

Zerbait soberan? Hainbat txokotara inongo lotsarik gabe botatzen den zaborra. Eta seguraski auto kopurua ere.

Zein da Leitzako txokorik ederrena zure ustez? Askok daude berez ederrak. Gitarran bueltatik korteko borolara pasean joatea ederra da.

Eta zein zakarrena? Neri pena ematen dit garai bateko geltoki eremu hori horrela ikustea.

Leitzako kaleen izenak ba al dakizkizu? Batzuk, gehienak bai, baina oraindik piszinetatik aurrera doan bide horrek zein izen duen...

Kale izenak ongi jarrita daudela uste al duzu? Ba egia esan ez nuen inoiz pentsatu horretan. Erreferenduma egingo al duzu?

Ostiraletako azkokara joaten al zara? Bertatik derigorrez pasatzen naiz eta bai.

Jendeak gauza asko erosten al ditu azokan? Ez dakit asko ala gutxi. Behar den hori erosi eta konformatzea izango litzateke hobereena.

Lanbidea aukeratu ahal izanez gero, zer aukeratuko zenuke? Daukatenarekin aurrera egitea izango dut hobereena, ze ez baitut txoilo izugarritan sinisten. Edo akaso nazkatu zarete nirekin?

Beste herriren batean biziko al zifateke? Non? Zuk emaidazu etxe bana Ondarru, Lekeitio, Oñati, Lizarrarri, Hondarribia, Lesaka eso Altza bezalako herrietan eta ikusiko duzu nola biziko naizen; gainera ez dut uste nik inorri buruko miñik sortzen diodanik, beraz...

